

Soraluzeko

XXXIX. IDAZLAN LEHIAKETA

B maila



SORALUZEKO
UDALA

Amets bat gure buruan

B maila

1. saria

AICHA EL

HILALI

Negua hasi zen egun batean bi anaiak Lukas eta Maria Londresera bizitzera joan ziren. Londres ezagutu eta gero bi anaien gurasoek eskola batera apuntatzea pentsatu zuten. Eskolako lehenengo egunean neska jator bat ezagutu zuten. Neska hau beraiek bezala euskalduna zen eta Londresera joana zen bere gurasoekin. Argia deitzen zen, eta ikasten ona zenez Lukas eta Maria bezala eskola hoberenera joatea pentsatu zuten bere gurasoek. Lukasez ez zuen hitz egiten. Txikia zela gurasoek ikusten zuten Mariak pila bat hitz egiten zuela, baina Lukasek ez zuen hitz egiten. Egoera horren aurrean, gurasoek medikoarengana eman zuten eta ikusi zuten Lukasek ezin zuela hitz egin. Mariak txikitan ikasi zuen seinu hizkuntza eta Lukasi laguntzen zion bere egunerokotasunean. Horretaz gain, Lukasez urteen poderioz ezpainak irakurtzeko gaitasuna barneratua zuen.

Londreseko eskolan zeudela, hiru lagunak oso ongi pasatzen zuten batera. Lagun pilo bat zituzten, baina beraien artean euskaraz hitz egiteko aukera izaten zuten, hori dela eta beraien harremana oso ona zen. Egun batean, Lukasek Mariari seinu hizkuntzen bidez adierazi zion inguruan zegoen mendi batera joatea gustatuko litzaiokela. Mariak Argiari kontatu zion Lukasek egitea nahi zuena eta hiru lagunak arratsalde pasa mendira joateko plana prestatu zuten.

Jarraian hiru lagunok eskola ondoan gelditu ziren mendira batera joateko. Bidean baso bat ikusi zuten eta bide hori jarraitzea pentsatu zuten. Basoa ilun zegoen, baina hiru lagunak jolasten zeudenez ez zuten beldurrik sentitzen. Momentu batean Lukas oso nekatuta zegoen eta zuhaitz baten ondoan eseri zen.

Denbora bat pasa eta gero, Lukasek bere atzean zerbait gertatzen zela sentitu zuen eta bat batean buelta eman zuen. Momentu horretan, zuhaitzean ate bat zegoela ikusi zuen eta harrিতuta Lukasek bere ahizpari eta Argia kontatu zien ikusten ari zena. Hiru lagunak altxatu eta zuhaitz alderantz joan ziren zuhaitz. Ez zekiten zein bide hartu atea pasatzea edo mendi aldera joan. Asko pentsatu ondoren, atea gurutzatzea pentsatu zuten, hirurak oso ausartzen ziren eta. Atea gurutzatu zuten momentuan, beste baso ilun batean zeudela ikusi zuten.

Atea gurutzatu ondoren hiru lagunak beldur pixka bat sentitu zuten, baina hartutako erabakiarekin aurrera egitea pentsatu zuten. Ibiltzen hasi ziren eta orduak pasa eta pasa eta oraindik ez zuten irteera aurkitu. Bat-batean zuhaitzetan ate gehiago agertzen hasi ziren, orduan hiru lagunak banaka banaka hasi ziren ateak zabaltzen. Ate bakoitzaren atzean gela desberdin bat aurkitzen zen eta gela bakoitzak erronka bat zeukan. Gela bakoitzean aurkitzen ziren erronkak pasatzea lortzen bazuten baso horretatik ateratzeko aukera izango zuten, bestela betirako baso ilun horretan geldituko ziren.

Lehenengo gelan erronka oso erreza zegoen beraien zain. Gelako sabaitik giltza bat zegoen zintzilik eta beraiek giltza hori lortu behar zuten. Gela horretan giltzaz gain, soka eta egur batzuk ere aurkitu zituzten. Hiru lagunak ideia berdina izan zuten eta egurrekin eta sokarekin eskailera bat egin zuten. Lukas izan zen eskaileran gora igo zena. Hiru lagunak ikusi zuten batera lan egiten nahi zituzten erronka denak lortuko zituztela eta baso horretatik ateratzeko aukera izango zutela.

Bigarren gelan laserrez beteta zegoen. Gela honetatik ateratzeko giltza lortzeko gelaren beste aldera iritsi behar ziren. Mariak ideia bat izan zuen momentu horretan, denbora batez zer gertatzen zen ikusiko zuten, eta ondoren beste aldera pasatuko ziren. Hiru lagunak gelan gertatzen ari zena begiratzen ari zirela ikusi zuten bat batean argiak itzali zirela. Orduan, Mariak proposatu zuen, berriro ere argia itzaltzen zen momentuan pasatuko zirela beste aldera. Laserrak itzali zirenean hiru lagunak korriketan joan ziren gelako beste aldera eta giltza hartzea lortu zuten eta hurrengo gelara pasatzeko aukera izan zuten.

Hirugarren gelan hiru aulki eta hiru mahai zeuden. Mahai bakoitzaren gainean hainbat matematikako eragiketa zeuden eta atearen gainean kronometro bat zegoen. Bat-batean ahots arraro bat entzun zuten; "minutu bat duzue eragiketak egiteko eta beste gelara pasatzeko, bestela ezin izango duzue hemendik atera". Hiru lagunak beldurrez hasi ziren, Lukasek eta Mariak oso azkar bukatu zituzten ariketak baina Argiak oraindik ez zituen bereak amaituta, baina bere lagunak pilo bat animatu zuten eta denbora amaitu aurretik ariketa denak egitea lortu zuen Mariak eta beste gelara pasatzeko giltza lortu zuten.

Laugarren gelan hainbat asmakizun zeuden. Gelan ez zuten ezer ikusten eta ez zekiten zer gertatuko zen. Aurreko gelan gertatu zen bezala, bat batean ahotsa entzun zuten; "gela honetatik alde egiteko lehenengo gelan ezkutatuta dauden giltzak aurkitu beharko dituzue eta gero gelan dauden ate egokia zabaldu beharko duzue." Hiru lagunak giltzak bilatzen hasi ziren baina ez zuten ezer ikusten.

Bat-batean Mariak amorru haundiz horma bati kolpea eman zion eta paretaren atzean lehenengo giltza aurkitu zuten. Orain ate bat zabaldu behar zuten, baina ez zeuden oso ziur zein ate zabaldu behar zuten. Azkenean erdiko atea zabaldu zuten eta beste gelara pasatzea lortu zuten. Gela honetan gutun bat zegoen beraien zain.

Oso azkar heldu zarete gela honetara, amaierara heltzen ari zarete horrela jarraitu. Gela honetako erronka osatzeko hainbat objektu zeuden hiru lagunen eskura. Soka bat ikusi zuten gelako ertz batean. Soka horrekin goiko giltzak hartu behar zituzten, baina gora heltzeko arazoak zituzten. Orduan Lukasek ikusi zuen sabaian burdin zati bat zegoela eta burdin horretatik soka pasatzen bazuten eskalatzeko aukera izango zutela. Behin eta berriz soka botatzen ibili ondoren, soka pasatzea lortu zuten. Argia izan zen sokan gora igo zena, baina ez zuen ezer aurkitu eta bere lagunei kontatu zien.

Maria pila bat haserretu zen eta pareta denak jotzen hasi zen. Pareta batean botoi txiki bat ikusi zuen eta besteei ezer esan gabe ukitu egin zuen, orduan ate txiki bat ireki zen eta barruan giltza agertu zen. Giltza hartu zuten eta gelako atea ireki zuten. Gela honetan beste gutun bat zegoen eta gutun horretan idatzita zegoen jarraian ikusiko duzuen:

Zorionak ematen dizkizuet!. Oso gertu zaudete bukaeratik gela bat eta bi erronka falta zaizkizue Animo eta jarraitu horrela!

Azkenengo erronka hauek pistekin eta zeinu hizkuntzarekin lotuta zeuden. Gela horretan kamera eta telebista bat zeuden. Telebisten hitz batzuk agertzen ziren eta seinu hizkuntzaren bitartez telebistan agertzen zena azaldu behar zuten hiru lagunek. Hitzez hitz erronka osatzen hasi ziren eta hiru lagunen arteko harremana oso ona zenez, berehala lortu zuten gelako giltza. Ate zabaldu zutenean, argi oso indartsua bat sentitu zuten beraien aurpegietan eta hurrengo gelan atera ziren. Hiru lagunek begiak itxi zituzten eta bat batean... Dena Argiaren amets bat zen.

HALA BAZAN ETA EZ BAZAN SAR DADILA KALABAZAN ETA ATERA DADILA SORALUZKO LIBURUTEGIAN!

Afrikaren historia

B maila

2. saria

LIDE VICIOSA

GARITANO

Afrikako basoetan, Txinpanze familia asko zeuden, Bongorena, Juanitorea, Susirena, nirea... Kaixo ni Afrika naiz eta gaur nire historia kontatuko dizuet.

Afrikako basoetan jaio nintzen, 1999. urtean, 3-4 urtetan oso zoriontsua izan nintzen, nire familiarekin, lagunekin, eta nire etsaiekin ere. Asko gustatzen zitzaidan nire bizitza.

Lau urte nituenean, gizakiak etorri ziren zuhaitzak moztera, hau da, nire etxea apurtzera. Nire amak urruti eraman ninduen baina alde guztietan zeuden.

Nire familia osoa hil zuten, ni izan ezik, oso txikia nintzela esaten zutelako, horregatik, itsasontzi batean sartu eta Kanariar uharteetara ilegalki eraman ninduten.

Kanariar uharteetan, gizon batek ni zainduko zuela esan eta bere etxera eraman ninduen. Etxean ez zidaten txinpanzeak bezala zaindu, pizza, cocacola, sopa... ematen zidaten jateko, colacao galletekin gosaltzeko eta afaltzeko, saltxitxak, hanburgesak... Horregatik txikia, hagin motzak eta ile gabe gelditu nintzen, hobeto esanda, ile gutxirekin.

Lau urte egon nintzen haien etxean, beraien alaba bezala tratatzen ninduten. Urte bat geroago, etxeko emakumea atakutzen hasi nintzen, etxean agintzen zuen emakumea ni nintzela adierazteko. Txinpanzeak munduan horrela egiten da. Horregatik logela batean giltzaturik uzten ninduten.

Beste urte bat geroago nire "ahizpa" atakutzen hasi nintzen, oso txikia zen baina ez zidan asko axola, gizakiak ez ninduten aguantatzen gehiago, horregatik, "Fundación mona"-ra deitu zuten.

"Fundación mona" Gironan dago. Primateei bizitza berri bat ematen die, eta ni primate bat naizenez, bizitza bat eman zidaten. Gironatik Kanariar Uharteetara asko dago, horregatik ordu batzuk itxaron behar izan genuen.

Heldu zirenean, kotxean zegoen kaiola batean sartu ninduten. Beste ordu batzuk egon nintzen kaiola barruan, kaiola metalezko barra batzuk ziren. Gutxienez mareatu bakarrik egin nintzen.

"Fundación mona"-ra heldu ginenean, a ze sorpresa!!! Nire lagunik onenak zeuden, Bongo, Juanito eta Susi. Bi familia zeuden, bakoitza izen batekin, Los Balumba eta Los Mutamba, nire kasuan Los Mutamba ginen.

2009 an heldu nintzen "Fundación mona"-ra. Orain, 2024a da eta oso pozik bizi naiz nire bizitza eta familia berriarekin. Espero dut Kanariar Uharteetako familia bisitan etortzea.

Ezinezko katua

B maila

3. saria

IKER LASKURAIN

LOPEZ

Behin batean, 1887ko gau ilun batean, umetxo bat jaio zen,
Mutila zen eta izena Erwin zuen,
Inork ez zekien bera zer izango zen,
Baina n-kin hasten da ta amaitzen zen obel.

Vienan jaio zen, Austrian zegoen,
Ikasketak egin zituen,
Fisika eta matematika, hori gustuko zuen,
Soldaduskara ere joan zen,
Gauza mordo bat erakusten ere, egon zen
Eta orain heltzen da, honera korapiloa,
Hitler Alemaniara heldu zen egunean.

Ez zitzaizkion Hitlerren ideak gustatzen,
Eta horregatik Alemaniatik joan zen,
Orain lan bat zuen,
Fisikoa izaten,
Eta orduan hasi zen gauza bat garatzen,
Noski, katu horrekin zerikusia zuen,
Bai horixe, hori fisika kuantikoa zen.

Hori azaltzeko ideia bat zuen,
Katuarena kutxa baten,
Zuek lasai, experimentu mental bat zen
Gero katua hilda edo bizirik zegoen jakitzea zen.

Funtzionamendua, berriz oso erraza zen,
Atomo bat, bi bide, katua kutxa baten,
Matrailu bat, mekanismoa eta toxina bat baino besterik ez,
Orain bai zeuei azaltzen.

Atomoa bide batetik joan behar zen,
Katua hilda dagoen edo ez jakin behar zuten,
Baina berak esan zuen ezetz, gutxienez hor barruan egoten bazen,
Fisika horrekin zergatik bizirik edo hilda egon behar zen?
Ezin da bietan egon momenturen baten?
Kutxa zabaldu zuten, eta katua... bizirik zegoen!
Berak azaldu zuen: "honela izango zen,
atomoek bi bide jarraitzen zituzten ,
Ta orduan guk begiratu arte hilda eta bizirik bera egongo zen".

Denek txalo egin zioten,
Ondo bizi izan zen,
Hau da Austriako on honen historia polita.